

EUSKAL HERRIKO TORTURATUOK AITORTZAREN, ERREPARAZIOAREN ETA EZ ERREPIKATZEKO BERMEEN BIDEAN

Agurtzane Juanena Alustiza eta Iker Moreno Ibañez gara. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak torturaren biktima ofizialki aitortuak, 12/2016 Legearen eta 16/2019 Foru Legearen bidez, hurrenez hurren.

Ni 1975eko irailean atxilotua eta torturatua izan nintzen Donostian, Brigada Politiko Sozialaren eskutik. Iker Moreno, aldiz, 2011ko urtarrilean atxilotu zuten Burlatan, eta Guardia Zibilaren eskuetan torturatua izan zen. Gure tortura kasuak lagin txiki bat baino ez dira. Euskal Herrian, sei hamarkada luzetan, Frankismoaren garai ilunenetik hasita eta kasik gaurdaino, milaka euskal herritarroi sistematikoki jasanarazi eta aplikatu digutelako tortura espainiar estatuko segurtasun indarrek, euskal gatazkaren testuinguruan.

Gaur, Donostiako Kursaalaren, Euskal Herriko Torturaren Aurkako Egunaren testuinguruan, Joxe Arregi torturapean erail zutela 44 urte igaro direnean, **Euskal Herriko Torturatuena Sarearen izenean**, ahotsa altxatu eta **honako hau adierazi nahi dugu**, gure memoriaren pisuarekin, ahazten ez dugun iragan baten izenean:

1. Hemen bildutakoak, Euskal Herriaren historia garaikideko hainbat unetan tortura geure azalean jasan dugunon testigantza bizia gara, eta **Euskal Herriko Torturatuena Sarea publikoki aurkezten dugu Euskal Herriko gizartearen aurrean**. Nafarroako esperientzia oinarri gisa hartuta, **nazio mailako sare hau eratzeko hautua egin dugu**. Torturatuak sortutako eta **torturatuentzako baliagarria izan nahi duen tresna**. Sare honen parte herri honetan tortura pairatu duen pertsona oro egin nahi dugu, milaka aurpegiren, milaka ahots isilarazi eta ukaturen bozgorailu izateko. Gure herriko torturatuena errealitatea jendartera eramateko subjektu aktiboa izan nahi duen sarea ehunduz.

2. Askoz gehiago daudela jakin arren, 5.000tik gora dira Kriminologiaren Euskal Institutuak egindako torturaren ikerketa zientifiko, independente eta profesionalaren bidez argitara ateratako tortura kasuak Euskal Herrian. Baina ez dugu txosten bateko zifra hutsak bakarrik izan nahi, gure herriko historia bizia garelako. Eta, bide horretan, **Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari, Euskal Herriko bi erakunde gorenei, eskatzen diegu aitortza eta erreparazio ofizialerako mekanismoak garatzeko, gure kasu konkretuekin egin bezala, torturatuena errealitatea osatzen duten 1960tik 2014ra bitarte jasotako milaka kasu guztientzako**. Torturaren errealitatea itzaletik argira ofizialki ateratzeko, torturaren hamarkadetako ukazioa behingoz amaitzeko.

3. Horrekin batera, **erantzukizun publikoak hartzeko ordua ere badela irizten diogu**. Torturaren aplikazioa Euskal Herrian **sistematikoa izan delako**. Metodo krudel eta lazgarria hori erabat operatibo egon den egitura oso baten babespean gauzatu eta justifikatu ahal izan delako, eta erantzuleak Espainiako Estatuko Segurtasun Indarretik haratago daudelako. Torturaren aplikazioan epaileek parte hartu baitute, mediku forentseek, hedabideek, hainbat indar politikok... **Eta erantzukizun hori publikoki onartzea ezinbestekotzat jotzen dugu torturatuena aitortza eta erreparazioaren bidean aurrera egiteko**. Hamarkada askotan, pertsona askok isilean sufritu ditugu torturaren ondorioak, gure bizitzak eta gure hurbilekoenak markatu dituzten esperientzia traumatikoen pisua geurekin eramanez. **Bada garaia, beraz, gizarteak eta erakundeek min hori aitortu dezaten, herri honek aurrera egin ahal izateko egia osoaren eta justiziaren bidean**.

4. Azpimarratu nahi dugu, halaber, torturak Euskal Herrian duen tamaina, dentsitatea eta intentsitatea oraindik ez direla ezagutzen bere osotasunean. Torturaren ondorioak ez baititugu lagun torturatuok soilik pairatu. Eta uste dugu torturaren errealitatea bere osotasunean jaso behar dela; haren ondorio politiko, sozial, kultural eta gizatiarrak ezagutarazi behar direla, baita begirada feministatik landu ere. Eskubideen urraketa larri horrek gure lurraldean izan dituen ondorioak ezagutarazteko, eta erakunde publikoen bidez erreparaziorako mekanismo integralak eraiki ahal izateko.

5. Jendarteari, datozen belaunaldiei, gertatu dena argitzea zor diegu. Zergatik torturatu gintuzten ezagutarazi beharra dago, tortura ahalbidetu zuen testuinguru politikoaren arrazoiak mahai gaineratu behar diren bezalaxe. Hori baita berriro ere ez errepikatzeko bermerik eraginkorra. Inork, inoiz gehiago guk pairatu duguna jasan ez dezan, eragin ez diezaguten.

Amaitzeko, adierazi nahi dugu gure malko bakoitzean, itotako gure oihu bakoitzean, duintasunaren oihartzuna ere badagoela, egiarako deia. Gaur, gure ahotsak altxatzen ditugula, ez bakarrik guregatik, baizik eta tortura sufritu zuten haiengatik guztiengatik. Garrantzitsuena ez delako egin ziguten hura, baizik eta egin ziguten harekin egiteko gai garen hori. Eta guk, sufriarazi ziguten hura ahalduntze kolektiborako erabili nahi dugu. Euskal Herri hobe baten bidean, egiaren aldeko pauso bakoitzean askatasunaren aldeko pauso bat ere badagoelako.

AITORTZAREN GARAIA DA

Donostian, 2025eko otsailaren 15ean

EUSKAL HERRIKO TORTURATUEN SAREA
harremanak@euskalherrikotorturatuak.eus
[@torturatuakEH](https://www.instagram.com/torturatuakEH)